

## **ESTABLEZIMENDUAK ZABALTZEKO UDAL JARDUERAREN TASA**

### **1. artikulua. OINARRIA ETA IZAKERA**

Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauaren 2. eta 21. artikuluetan oinarrituta, udal honek establezimenduak zabaltzeko udal jardueraren tasa eskatuko du.

### **2. artikulua. EGITATE EZARGARRIA**

1- Tasaren egitate ezargarria, kasu hauetarako, udal jarduera da:

1. Establezimenduak zabaltzeko jarduera lizentzia emotea.
2. Aurretiazko komunikazioa eta/edo aitorten erantzulearen menpe dagozan establezimenduen zabaltze ondoko kontrola.

2- Jarduera lizentzia: Udal jardueraren tasaren egitate ezargarria da industria eta merkataritzako establezimenduek segurtasun, osasun, osasungarritasun eta garbitasun baldintzak beteten dauzen edo ez egiaztetako udal jarduerak, baita udalaren edo erakunde guztien ordenantzan eta erregelamentuan eskatzen diran baldintzak be, lokala zabaltzeko lizentzia eskuratu ostean. Horreek alde aurretik betetea ezinbestekoa da, udalak lizentzia emon daian, Tokiko Korporazioen zerbitzuen Erregelamentuaren 22. artikulua dakarren lizentzia hain zuzen be.

3- Aurretiazko komunikazioa eta/edo aitorten erantzulearen menpe dagozan establezimenduen zabaltze ondoko kontrola: Tasaren egitate ezargarriak barruan hartzen dau, subjektu pasiboak aurretiaz adierazitako jarduerak zabaldu osteko kontrolerako udalak burutu beharreko jarduerak teknikoak eta administratiboak; baita aitortutako baldintzen egiaztapena, egindako eta adierazitako jarduerak edo egin gura izan danak urigintza arloko araudia beteten dauen egiaztetako, eta horrez ganera, urigintzako planeamentua eta eraikin, lokal, instalazio eta garatzeko bete beharreko tramitazio hau derrigorrezkoa daben jarduerak burutzera zuzendutako eremu libreei aplikagarriak jakezan udal ordenantzak. Borondatez eskatzen dabenentzat, esate baterako, handitzeak, erabilera aldaketak eta jarduera barriak sartzeko be bai, baina kontuan izanda, jarduera barri hori ez dagoala Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalen kode ber-beragaz sailkatuta eta jardueraren kalifikazioan ez dakarrela ezelako aldaketarik. Guzti hori, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 84. artikulua administrazioari emondako esku hartzeko eskumenari esker.

Udal jarduera hori subjektu pasiboaren aurretiazko adierazpenaren ondorioz sortu daiteke, edo ikuskatze jardueraren ondorioz, adierazi ez diren jarduerak dagozala

egiaztatzen denean, edo egindako aurretiazko adierazpenak bere osotasunean babesten ez dauzan kasuak antzemoten diranean

4- Lokala zabaltzen dala ulertuko da:

- a) Establezimendua lehenengoz ipintzeko jarduerak egiten hasteko.
- b) Establezimenduan egindako jarduera aldatzea edo handitzea, titular berak jarraitzen badau be.
- c) Establezimendua handitzea eta bertan egiten diran eta artikuluko honen 1. atalean emondako baldintzak ikutzen ez dauzen aldaketak egitea; horretarako, baldintzak egiaztatu behar dira barriro.

3.- Industriako edo merkataritzako establezimendua etxebizitzarako bakarrik ez dan eta jentearentzako zabalik ez dagoan higiezinari deritxo, beti be baldintza honeek beteten badauz:

- a) Enpresako, fabrikako, eskulangintzako, eraikuntzako, merkataritzako eta zerbitzuetako jardueraren batekoa izatea, ekonomia jardueren ganeko zergeari lotuta.
- b) Garatzen ez badira be, jarduera horreen lagungarri edo osagarri diren jarduerak, edo hareekaz zerikusia daukien etekinak edo aprobetxamentuak jasota, esate baterako: egoitza sozialak, agentziak, erakunde juridikoen ordezkariak edo sukursalak, eskritorioak, bulegoak edo estudioak.

### **3. artikulua: SUBJEKTU PASIBOA.**

1. Orokorrean Bizkaiko Lurralde Historikoaren Foru Arau Orokorraren 34. artikuluan azaltzen diran persona fisiko eta juridikoak dira subjektu pasiboak eta tasa honetan bereziki, honeek:

Jarduera lizentziaren eskatzailea eta Aurretiazko komunikazioa eta/edo aitortpen erantzulea egiten dauena.

2. Horren kalte barik, Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauaren 24. artikulua ezarritakoa kontutan izanda, lokalen jaubeak izango dira subjektu pasiboaren ordezkariak, eta jaubeek, kasu horretan, onuradunei jasanarazo ahal deutseez kuotak.

### **4. Artikulua: SORTZAPENA ETA ORDAINDU BEHARRA**

1- Jarduera lizentzia:

a) Tasa sortu eta ordaindu beharko da egitate ezargarria eragin dauen udal jardueraren hasten denean. Horretarako, jardueraren hasierako dala ulertuko da lokala zabaltzeko lizentzia aurkeztu ondoren egunetik aurrera, subjektu pasiboak eskabidea beren beregi aurkeztu behar du.

b) Establezimendua lizentzia barik zabaltzen denean, udal jardueraren hasten denean sortuko da tasa, establezimenduak eskatzekoak diren baldintzak betetzen dauzan ala ez erabagiteko, beti be establezimendua zabaltzea baimentzeko instruitu daitekeen administrazio espedientea hasi dan edo ez kontuan hartu barik, edo establezimendua ixteko erabagia hartzeko, zabaltzeko moduan ez badago.

c) Tasa ordaindu beharra sortuta, ezarriko diren neurri zuzentzaileak bete behar dauzan lizentzia emoteak ez dau eraginik izango tasan, eskatzaileak lizentziari uko egin deustola-eta edo atzera bota dala-eta.

2- Aurretiazko komunikazioa eta/edo aitortzen erantzulearen menpe dagozan establezimenduen zabaltze ondoko kontrola:

a) Tasa hau egitate ezargarria osatzen duen udal jarduerari hasiera ematen zaionean sortzen da eta berarekin batera sortu ere, ordaintzeko betebeharra. Ondorio hauetarako, jardueraren hasierako adierazpen idazkia aurkeztu ondoren eguna hartuko da jardueraren hasierako egun modura, establezimenduak zabaltzeko hasierako ekintza adierazteko prozedura eta ondorengo kontrola arautzen duen Udal Ordenantzak ezarritakoa eta baita Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. Artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Era berean sortuko da tasa, jardueraren edo instalazioaren garatzen direnean, establezimenduak zabaltzeko hasierako ekintza adierazteko prozedura eta ondorengo kontrola arautzen duen Udal Ordenantzak ezarritako aurretiazko komunikazioa aurkeztu ondoren edota jardueraren hasten denean adierazi dena eta udalak ikuskatze lanak burutu eta gero eta horreen ondorioz egiaztatzen denean garatutako jardueraren pribatua.

c) Zerga ordaintzeko obligazioa sortzen da garatu daitekeen lokal bakoitzean, aurretiazko komunikazioa eta aitortzen erantzulearen prozedurari lotutako jardueraren egiten den bakoitzean (fabrikak, tailerrak, bulegoak, dendak, biltegiak eta edozein motatako lokalak).

## **5. artikulua: KUOTAK.**

Kuotak zenbateko finko baten finkatuko dira espediente motaren arabera:

### Egitate ezargarria

1- Aurretiatzko komunikazioa eta/edo aitorten erantzuleak araututako udal jarduerak	276,42
2- Jarduera lizentzia	962,18
3- Jarduera lizentzia eman ostean kexaren bat aurkeztu delako edo matxuraren bat egon delako, musika ekipoek sortutako soinu maila neurtzeko eta mugatzeko egindako ikuskaketak eta egiaztapenak	590,79
4- Aurretiatzko komunikazioa edo aitorten erantzulea aurkeztuta udalak baldintza zuzentzaileak jarri behar baditu	138,21
5- Taberna, kafetegi edo antzekoen sailkapena aldatzea	41,46

#### 6. artikulua: ALDI BATERAKO JARDUERAK

Saldo eta iraupen laburreko beste negozioetarako establezimenduen kasuan tasa ordainduko da, baina aldi baterako jarduera amaituta lokala itxita dagoela egiaztatuta, hiruhilekoetan egokitzen den zati proportzionala itzultzeko eskatu leiteke.

#### 7. artikulua. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK.

##### 1.-Salbuespenak:

Leku aldaketak eta zabaltzeak tasaren ordainketatik salbuetsita egongo dira kasu hauetan: hondamen aitortenaren, hur-hurreko hondamenaren, desjaubetzearen, hondoratzeen, suteen, kaleratzearen edo epai irmoaren ondorioz gertatzen diranean, eta horren arrazoia jardueraren titularri egotzi ezin bajako, eta beti be, jarduera bera denean lekuz aldatzen edo berriro zabaltzen dena.

##### 2.-Hobariak:

###### 1.- Titularra aldatu barik:

- Negozio lokala handitzea.....:%50
- Jarduera handitzea.....:%50
- Lokala berristeko obra egiten denean.....:%50
- Jarduera tokiz aldatzea.....:%50

###### 2(\*).- Titularra aldatuta:

- Jarduera bera mantentzean.....:%30

###### 3.- Alde Zaharrearantz jarduera barria igiritzea edo titularra aldatuta egon dagoana mantentzea .....:%50

*Aurreikusitako hobari mota baten eskubidea bakarrik eukiko da.*

3.- Hobarien onurak izateko, hobariak emoteko kasu bakoitzean gertatzen diren egoerak adierazoz beharko dira eskabideetan.

Jarduera mantenduta jardueraren titularidade aldaketaren kasuan (\*) honako baldintzak emoten direnean eukiko dau hobari eskubidea eta betetzen dauzala erakutsi beharko dau jagokezan agiriak aurkeztuta hobariaren eskariagaz batera:

- 1- Aurreko titularrak jarduerarako irekitze lizentzia eukitea edo aurre-komunikazioa onartuta eukitea.
- 2- Titularidade aldaketa egin baino sei hilabete arinago aurreko titularrak jarduera martxan eukitea.
- 3- Aurreko titularrak titularidade aldaketa egin arte EJZ altan egotea.
- 4- Aurreko titularragaz jardueraren titularidadea aldatzeko akordioa eukitea.

#### **8- artikulua. KITAPENA ETA ORDAINKETEA**

1- Jarduera lizentzia: Tasa jarduera lizentzia ematen denean kitatuko da eta kitapen zuzenez jakinarazoko jako subjektu pasiboari.

2- Aurretiazko komunikazioa eta/edo aitorten erantzulearen menpekoak:

a) Auto-likidazio erregimenean eskatuko da tasa, jarduera hasteari buruzko aurretiazko adierazpen idazkia aurkezten danean. Interesdunek Aitorten Erantzulean zehaztu beharko dute tasaren ordainketa egiaztatzen dituzten datuak.

b) Bestelako kasuetan udal jarduera gauzatu danaren adierazgarria dagoanean kitatuko da kitapen zuzenez.

#### **XEDAPEN GEHIGARRIA**

Ordenantza honetan beren beregi araututa ez dagoenarako aplikagarria izango da Kudeaketa, bilketa eta ikuskapenaren Ordenantza Orokorrean xedatutakoa.